



2019ko irailaren 30eko EBAZPENA, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez partzialki aldatzen da 2019ko ekainaren 24ko Ebazpena, 2019-2020 ikasturtearen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen antolaketari buruzkoa.

2019ko ekainaren 24ko Hezkuntzako sailburuordearen Ebazpenean, 32. orrialdean, “3.1.3 - Asteko lanaldia eta irakasleen funtzioak” atalean, ezartzen dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan zenbat izan behar diren bai asteko orduak, bai irakaskuntza-arduraldikoak.

Dena dela, atal horretan agertu behar da horri buruz 185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoz unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen dena

Horren ondorioz,

EBATSI DUT:

2019ko ekainaren 24ko Ebazpenaren 3.1.3 atala, asteko lanaldia eta irakasleen funtzioei buruzkoa, zuzentzea ondoren ezarritakoaren arabera:

“Irakasleek astean 30 orduko lanaldia beteko dute, ikastetxean eman beharrekoa. Ordu horietatik, gehienez, 23 ikastorduak izango dira, (atsedenaldiak barne); halakoek ikasleekin zuzeneko harremana izatea ekarriko dute, eta oinarrizko konpetentzia guztien bitartez haien irteera-profila lortzea izango dute helburu. Irakaskuntza-arduraldiko orduetan honakoak sartuko dira: curriculumaren irakaskuntza-orduak; ikasleekiko tutoretzakoak, hezkuntza sendotzeko orduak, ikasleek parte hartzeko IHPan onartuta dauden proiektuetako jardueretan ematen diren orduak; eta hezkuntza-arretako orduak.”

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 30a.

Izp.: Miren Maite Alonso Arana
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA